

Zangoza / 2024

KULTUR AGENDA

urria



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CONSEJO REGULADOR PALACIO DE VALLESANTORO
VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia / Kultura-Etxea

Kultura-zerbitzuko Arreta Ordutegia: astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoko Ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatean, 19:00etatik 21:00era. Igande eta Jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es.

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea hemen kontsultatu: www.sanguesa.es

 www.facebook.com/culturasanguesa

 www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

SARRERAK SALTZEA

Aldez aurreko salmenta: urriaren 1etik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.

Tfno: 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzezen egunetan: Karmengo Entzunaretoa (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenagotik.

Tfnoa: 948 870 632

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak.

Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko

Ikuskizunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela aurkeztu beharko da entzunaretoa sartzean.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoa badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofona erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparatutik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoa mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948 870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.



1	As	Erakusketa. «Variaciones» (urriaren 20a bitarte)	4. Orr.
2	Az		
3	Og		
4	Os	Hitzaldia. «Los teleclubes: el caso de Sangüesa»	11. Orr.
5	La	Heptameronaren 4. kapituluaren irakurketa euskaraz	12. Orr.
	La	Bakarriketa. «Yo sobreviví a la EGB»	5. Orr.
6	Ig	Familia antzerkia. «Molto barroco»	5. Orr.

7	Al		
8	As	Erakusketa. «Pilota jokoetako erremintak eta argazkiak» (urriaren 13a bitarte)	4. Orr.
9	Az	Liburuaren aurkezpena «Urkiaren azala. La piel del abedul»	11. Orr.
10	Og	Hitzaldia. «Historia de la pelota vasca»	11. Orr.
11	Os		
12	La	Antzerkia. «Ezkaba»	6. Orr.
13	Ig	Zinea. «Migración, un viaje patas arriba»	8. Orr.

14	Al	«Zangozako Jaiak 2024» argazki lehiaketaren epearen amaiera	9. Orr.
----	----	---	---------

15	As		
16	Az	Ipuin-kontalaria. «El príncipe encerrado» (gazt.)	9. Orr.
17	Og		
18	Os	Haurrendako sortze-dantzako taillerak (ekainaren 6a bitarte)	10. Orr.
19	La	Nafarroa Oinez asteburua	12. Orr.
20	Ig	Nafarroa Oinez asteburua	12. Orr.

21	Al		
22	As		
23	Az		
24	Og	Erakusketa. «Las pequeñas cosas. Un inventario de lo común» (azaroaren 17a bitarte)	4. Orr.
	Og	Ekintza. «Estar con las cosas», Estitxu Arroyorekin	4. Orr.

25	Os		
26	La	Dantza. «Nik Eu 2.0»	6. Orr.
27	Ig	Hitzaldi-kontzertua. «Hiru Txito»	7. Orr.

28	Al		
28	As		
30	Az	Ipuin-kontalaria. «Mamuak nire ohe azpian bizi dira» (eusk.)	9. Orr.
31	Og		

Azaroa

1	Os	Familia antzerkia . «A la luna»	7. Orr.
2	La		
3	Ig	Musika. Jo & Swiss Knife	8. Orr.

Erakusketak



«VARIACIONES»

ISMAEL LOPERENA

URRIAREN 20RA BITARTE

Ismael Loperenak ikuspegi kolorista eta freskoa erakusten digu, motibo errealistez beterik, mundo abstraktu batean salteatuta.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxeko behealdeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



«PILOTA JOKOETAKO ERREMINTAK ETA ARGAZKIAK»

URRIAREN 8TIK 13RA

Nafarroako Euskal Pilota Federazioaren, Nazioarteko Euskal Pilota Federazioaren, Nafarroako Kirol Institutuaren eta partikularren laguntzari esker, euskal pilota eta pilota jokoetako erreminta nagusiak jaso ahal izan dira: eskularru motzak, luzeak, paleta ezberdinak, erremontea... Erakusketan, gainera, dominak, txapelak eta argazkiak agertzen dira, pilota jokoen bilakaera jasotzen dutenak.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxeko bigarren solairuko Erakusketa Aretoa

Antolatzaila: Napike (Euskal Pilotaren Nafarroako Kultur Elkartea).

Laguntzaileak: Zangozako Udalaren Kirol Arloa eta Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Kirolaren Institutua.



«LAS PEQUEÑAS COSAS. UN INVENTARIO DE LO COMÚN»

FLUXU Arte garaikidearen zirkuitua Nafarroan

ESTITXU ARROYO

URRIAREN 24TIK AZAROAREN 17RA

Estitxu Arroyoren (Areatza, 1973) erakusketak «Gauza txikiak. Ohikoaren inbentarioa» du izenburua. Gonbidapena da gure egunerokotasuna osatzen duten elementuak eta objektuak behatzeko. Instalazio honen xedea da ikustaraztea oharkabean gertatzen dena, baita ohikoaren edertasuna ezagutzera ematea ere.

Inaugurazioa dela eta, urriaren 24an (osteguna), 19:00etan, Estitxu Arroyok Gauzekin egotea ekintza burutuko du.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxeko behealdeko Erakusketa Aretoa.

Antolatzaila: Nafarroako Gobernua.



Ordutegia: asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatean, 19:00etatik 21:00era. Igande eta Jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Arte eszenikoan Karmengo Entzunaretoan



BAKARRIZKETA

«Yo sobreviví a la E.G.B.»

JORDI MERCA

LARUNBATEAN, URRIAK 5

Zuzendaritza eta interpretazioa: Jordi Merca.

Zuzeneko musika: Iván Vilches.

OHOko belaunaldikoa zara? Etorri 80ko hamarkada berpiztera Ni bizirik atera nintzen OHOTik lan honetan. Umorezko ikuskizun ezin hobea garai madarikatu hori pairatu zenuten guztiondako. Hau da Stand-up ikuskizuna, izan zinen pertsona hura eta orain zarena modu barregarrian gogoraziko dizuna.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko salmenta: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



FAMILIA ANTZERKIA

Ipar Eszena Bidea Programa

«Molto barroco»

PÍSCORE TEATRO

IGANDEAN, URRIAK 6

Antzerkilariak: Pepe Varela, Diego Rosal, Félix Rodríguez, Pablo Cabanelas. **Zuzendaria:** Fran Rei.

Píscore Teatrok barroko garaiko musikaz antzerkitik eta umoretik gozatzeko aukera eskaintzen du. Emaztegaiari mandatu egiteko dantzaldia dela eta, Erregeak jatorrizko pieza bat eskatu dio gorteko konpositoreari. Eskaera horrek eszena komiko batzuk sortzen ditu konpositorearen eta hiru ganbera-musikarien artean.

Ikuskizuna amaitzean, nahi duten familiekin topaketa eginen da, eta konpainiarekin solas egin ahal izanen dute, Hodei magoak lagunduta.

Ikusleak: 6 urtetik gorako haurrak eta sendiak.

Iraupena: 55 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko salmenta: 3 €. **Txartel-leihatilan:** 5 €.

Laguntzen du: Nafarroako Gobernuak.

Arte eszenikoan Karmengo Entzunaretoan



ANTZERKIA

«Ezkaba»

ILUNA TEATRO

LARUNBATEAN, URRIAK 12

Antzerkilariak: Marta Juárez, Ana Berrade, Raquel Sánchez, David Larrea, Miguel Goikoetxandia. **Koreografia:** Arantxa Villanueva. **Zuzendaria eta testuaren egilea:** Miguel Goikoetxandia.



Eta harresiek eta hildakoez hitz eginen balute? Presondegiaren memoria bertako biztanle, familia, historia, itxaropen eta ilusio zapuztuen oroimena da. Espetxeko bizitza eta Ezkabako ihesaldia birsortzen dituen lan zirraragarria, konpromiso historikoa duena.

Ikusleak: gazteak eta helduak.


Iraupena: 70 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko salmenta: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €. **Gazte Txartelarekin:** 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



DANTZA

Sendaberri, Paisaia eszeniko berriak

«Nik Eu 2.0»

IXA

LARUNBATEAN, URRIAK 26

Antzerkilariak: Rosanna Freda, Raul Melcón, Miguel Arévalo eta Xián Martínez. **Zuzendaritza:** iXa - Xián Martínez.

«Nik Eu 2.0», oroitzapenen eta esperientzien kutxa gisa planteatzen da, bizitako errealitateen museoa izanen balitz bezala, ideien nahaspila batean antolatutako espazio gisa, gure nien barru-barrukoa bilatzeko eta ikusle bakoitzarenarekin konektatzeko.

Ikuskizuna amaitzean, nahi dutenek talde artistikoarekin solasaldi bat izan dezakete.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 50 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko salmenta: 6 €.

Txartel-leihatilan: 8 €. **Gazte Txartelarekin:** 5 €.

Antolatzaile eta laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



Arte eszenikoan Karmengo Entzunaretoan



KONTZERTU-HITZALDIA

Cultur-Izan. Tradiziozko arte adierazpenen egitaraua

«HIRU TXITO»

BARAÑAIN ABESBATZA

IGANDEAN, URRIAK 27

Kontzertu-hitzaldi honek Nafarroak duen ahots-ondare musikal aberatsa aztertzen du, bere kultura-ondare materiagabearen funtsezko zati gisa.

Alde batetik, Pello Leiñena Mendizabal musikologoak Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboko zuzendariak, etnomusikologiaren lana eta ondare hori zaintzeko ikerketa zentroak jorratuko ditu hitzaldi batean. Bitartean, Barañain Abesbatzak, landa inguruneetako ohiko eran melodiak interpretatuko ditu a capella.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu.

Ordua: 19:00.

Sarrera doan gonbidapenak aurretik hartuta.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernuak.



FAMILIA ANTZERKIA

«A la luna»

VOILÀ! PRODUCCIONES

OSTIRALEAN, AZAROAK 1

Aktorea: Elisa Forcano. **Zuzendaritza:** Cynthia Miranda. **Zuzendaritza teknikoak:** Daniel García.

60ko hamarkadan, Tarak baserrian igarotzen ditu udak, izarrei begira, astronauta izatearekin ametsetan, eta liluratuta bizi da bere aitona burutsuak kontatzen dizkion istorioekin. Hau desagertzen denean, Tara ilargiaren patua salbatzeko misioan murgiltzen da antzar talde bitxi baten laguntzaz. «Ilargia» lanak antzerkia eta animaziozko zinema uztartzen ditu, samurtasunez eta fantasiaz beteriko istorio magiko bati forma emateko familia-ikuskizun harrigarri batean.

Ikusleak: 4 urtetik gorako haurrak eta sendiak.

Iraupena: 60 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko salmenta: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernuak.

Arte eszenikoan Karmengo Entzunaretoan



MUSIKA (countrya, folka, amerikarra)
Nafarroako Gobernuaren «Bira Nafarroan barna» programa

JO & SWISS KNIFE

IGANDEAN, AZAROAK 3

Musikariak: José Monreal, ahotsa, mandolina, gitarra, merlin, aho-soinua; Aritz Sardina, ahotsa, suitcasedrum, tambourine, koilarak, washboard, gitarra; Javi Aramendia, gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa, banjoguitar eta koruak; David Lotero, kontrabaxua, koruak; Iñigo Vidaurre, biolina, mandolina eta koruak.

Jo & SwissKnife taldeak proiektu berri hau aurkeztu dute 2024an. Hiru lan ditu atzean bandak, eta lotsagabe paseatzen da amerikar musikak hartzen dituen genero ezberdinetan zehar. Oraingoan, lehen aldiz, kantuak gaztelanieraz idatzi dira osorik, amerikar musika, bluegrass, rock, country edo pop estiloko enpate bikainarekin bat eginik.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Iraupena: 80 minutu.

Ordua: 19:00.

Sarrerak: 5 €.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernu.



Zinea

«Migración, un viaje patas arriba»

IGANDEAN, URRIAK 13

Animazioa. Zuzendariak: Benjamin Renner, Guy-Laurent Homsy.

Mallard familia «geldirik» geratu da. Aita Mack bere familia zaintzen errealizatuta sentitzen den bitartean Ingalaterra Berriko urmaelean, ama Pam bizitza bizitzeko eta bere seme-alabei mundua bere osotasunean deskubritzeko gogoz hil egin da. Ahate migratzaileen familia bat urmaelera urrutiko lekuetako istorio zoragarriekin iritsi ondoren, Mallardtarrek hegoalderako bidaiari ekinen diote negua igartzeko, lagun berriak egiten eta esperientziak bizitzen lagunduko diena.

Ikusleak: egokia ikusle guztiendako.

Iraupena: 82 minutu.

Ordua: 18:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerak: 3 €.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.



Ipuin-kontalaria



«El Príncipe Encerrado» (gaztelaniazko ipuin-kontalaria)

PRÓSPERO TEATRO

ASTEAZKENEAN, URRIAK 16

Dena prest dago emanaldirako, baina ipuin-kontalaria ez da agertzen.

Denak izutu egin dira. Nor Lourdes baino hobea, liburutegiko liburu guztiak ezagutzen dituen garbitzailea, egoera hau salbatzeko? Batere zalantzarik gabe bere ipuinik gogokoena kontatuko digu: «El Príncipe Encerrado». Ezpata bihurtutako mustukari helduta eta bere Zaldi lletsutxoaren gainean, abentura magiko honetan gidatuko duten Fre eta Gona printzesekin egingen du topo.

Iraupena: 40 minutu gutxi gorabehera.



“Mamuak nire ohe azpian bizi dira” (euskarazko ipuin-kontalaria)

VENTURA RUIZ

ASTEAZKENEAN, URRIAK 30

Inoiz esnatu al zarete gauean eta zarata bat entzun duzue zuen ohe azpian? Ziur al zaudete orkatilatik har zaitzaketela gauean jaikiz gero? Nolakoak izanen dira gure ohe azpian bizi direnak? Zatozte eta jakinen duzue!

Iraupena: 50 minutu gutxi gorabehera.

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Ordua: 18:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko erabilera anitzeko aretoa.

Sarrera doan edukiera bete arte.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuak.

Argazki-lehiaketa



«ZANGOZAKO JAIK 2024» VII. ARGAZKI-LEHIAKETA

Epea: urriaren 14a bitarte.

Oinarriak eskuragai daude Kultura-zerbitzuan edo www.sanguesa.es eta www.sanguesacultura.es udaleko web-orrietan.

“Reinas”. Elena Reta Almarcegui.

Dantza tailerrak



HAURRENDAKO SORTZE-DANTZAKO TAILERRAK

2010etik 2018ra jaiotako haurrei zuzendutako dantza sustatzeko jarduera.

Irakasleak: Fueradeleje Dantza Konpainia.

**2024KO URRIAREN 18TIK
2025EKO EKAINAREN 6RA**

Eguna: ostirala.

Ordu-kopurua: 27.

Matrikulak: 54 €.

Gutxienezko ikasle kopurua: 8.

Gehienezko ikasle kopurua: 15.



HAUR-DANTZAKO TAILERRA (I)

Adinak: 2017an eta 2018an jaiotako haurrak.

Ordutegia: 17:15etik 18:15era.



HAUR-DANTZAKO TAILERRA (II)

Adinak: 2015ean eta 2016an jaiotako haurrak.

Ordutegia: 18:15etik 19:15era.

HAUR-DANTZAKO TAILERRA (III)

Adinak: 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014an jaiotako haurrak.

Ordutegia: 19:15etik 20:15era.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe
erabilera anitzeko aretoa.

Izen-ematea:

urriaren 11ra bitartean Kultura-etxe
Argibide Bulegoan, asteartetik ostiralera,
12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik
21:00etara;

baita 948 870 251 telefonora deituz ere edo
emailaz infocultura@sanguesa.es helbidean

Izena ematearen baldintzak:

Gutxienezko ikasleen kopurua lortuko ez balitz bertan behera geratuko litzateke. Eskaera toki eskaintza baino haundiagoa izanen balitz eskatzaile guztien artetik zozketa bat eginen litzateke. Ikastaroa Kultura-zerbitzuan ordainduko da izena emateko epea behin bukatuta eta ikastaroa hasteko aurreikusten den eguna baino lehen.

Beste zenbait ekitaldi



HITZALDIA

«Los teleclubes, una forma de ocio contra la despoblación: el caso de Sangüesa»

OSTIRALEAN, URRIAK 4

Hizlaria: Patxi Caspistegui. Historia garaikideko katedraduna Nafarroako Unibertsitatean.

Teleklubeak hirurogeiko hamarkadaren amaieran eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran sortu ziren, gazteen aisialdi-gabeziak betetzeko modu gisa, batez ere landa-eremuetan edo herri txikietan.

Ordua: 19:00.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

Antolatzailea: Nafarroako Artxibo Garaikidea. Nafarroako Gobernu.



LIBURUAREN AURKEZPENA

«Urkiaren Azala. La piel del abedul»

Olerkiak, Sarrerak, Ipuinak.

ASTEAZKENEAN, URRIAK 9

Egilea: Juan Pedro Aramendía.

Autor: 19:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.



HITZALDIA

«Euskal pilotaren historia»

OSTEGUNEAN, URRIAK 10

Hizlaria: Xabier Martínez Álava, presidente de Napike.

Ordua: 19:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

Antolatzailea: Napike (Euskal Pilotaren Nafarroako Kultur Elkartea).

Laguntzaileak: Zangozako Udalaren Kirol Arloa eta Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Kirolaren Institutua.

Nafarroa Oinez



HEPTAMERONA: 4. ATALAREN IRAKURRALDIA

LARUNBATEAN, URRIAK 5

2021ean, Booktegik eta Nafar Ateneoko euskara sailak Nafarroako Margaritak idatzitako «L'Heptameron» maisulana euskaratzeko proiektuari ekin zioten. Bertan, urtero kapitulu bat itzuliko litzateke eta hura leku ezberdin batean irakurtzeko jardunaldi bat antolatuko litzateke. Aurtun, irakurketarekin batera, Heptameron abesbatzaren errezitaldia, Pilar de Vallek Margarita Erreginari buruz emandako hitzaldia eta Jon Oriaren tesiaren aurkezpena izango dira (Henrike II.a Albretekoa Kultura-taldeak argitaratutakoa), baita Zangozan zehar ibilaldira ere.

Irakurketa irekia da parte hartu nahi duen edonorentzat. Horretarako e-mail bat bidali beharko da euskera@ateneonavarro.es helbidera izen-abizenak adieraziz eta astebete lehenago irakurri beharko duen testua bidaliko zaio (orrialde 1, gutxi gorabehera).

Ordua: 10:00etik 19:30era.

Lekua: Zangozako ikastola.

Antolatzaileak: Nafarroa Oinez eta Nafar Ateneoa.

Laguntzailea: Euskarabidea.

NAFARROA OINEZ ASTEBURUA

LARUNBATEAN, URRIAK 19 ETA

IGANDEAN, URRIAK 20

Ahalegin eta gogo handiko urte baten ondoren Nafarroa Oinez gure hirira dator. Zangozako Ikastolak Nafarroako ikastolen jaia hartuko du eta euskararen inguruko jardunaldi bat ospatuko du. Asteburu honetarako Zangozako Ikastolak adin guztientzako jarduera ugari antolatu ditu: kontzertuak, emanaldiak, tailerrak... Programa oso horrekin gure eskualde osoak gozatzea nahi dugu, baita bisitatuko gaituzten pertsonek ere.

Antolatzaileak: Nafarroa Oinez - Nafarroako Ikastolen Federazioa.



Helduen euskalduntzea

HELDUAK EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

Oinarriak eskuragai dituzue Kultura-zerbitzuan edo www.sanguesa.es eta www.sanguesacultura.es udaleko web-orrietan

Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik.

